

Maria Larruskain, aurrera eitzeko adoria lagun

NORK EZ EBAN EZAGUTU PLAZAKO BERE DENDAKO MOSTRADORE OSTIAN, ORIXUA KRISTALEZKO BOTILLETAN ETA SUELТУAN EMOTEN ZAN SASOIAN? ZEĨNEK EZ GOGORATU ZUBIAURREKO LIBURUDENDAN, ERREIXA BIKO HAREK KOADERNO LARANJAK UMIEI SALTZEN, TXISTE EDO FRESKURAREN BAT AHOMIÑIAN BETI?

Markiñako Anittu-Goiko basarrian 1904ko ilbal-tzaren 22xan jaixotako neskatotxu hari Maria izena ipiñi zotsien. Patxi eta Juliñaren 10 seme-alabak, beste sasoi batek atrapau bazitxuan, olgetarako lagun aldra ezin hobia osatuko eben. Baiña oiñazian ikasi ebenetik in kontu, eginkizuna eta biharra besterik ez eben ezagutu: egur-ekarten, behi-zaiñen, gana-jatekotan, arto-zuriketan, porrusartzen edo patata zein gari



batzen. Tartian be diabrukerixaren bat zelan ez! Nagusixak eberdiostelua eitzen euazala aprobetxatzen eben euren fetxorixak antolatze-ko.

Eskolara larregi juateko astixa hartu barik, bost urtekin Munitxibarrera bialdu eben aitxitxa-amumak zaintzera eta hamabikin Markiñako *Oxillaingo* errotara krixada, iñoren etxian bizi-modua zer zan ikastera.

Salerostaillia

Aitxa ardi tratantia eban; bere ogibidia ulixaiñi artaldiak erosi eta belendixai saltzia zan. Ama, hainbeste ume mundura ekartiaren ondorixoz, osasunez makalik egon zan luzeruan eta gaztiok kargotu bihar haziendiaz. Biharrak eta ardurak erakutsitxako eskolia izan eban maixu.

Jose Joakin Solozabalekin ezkondu eta lau alaba izan zitxuen: Puri, Rosi, Higinita eta Inmaculada. Ger-ratia zabaldu aurretixuan



jaixota hirugarrena, ha amaitxu orduko etorri zan laugarrena. Gosia etxe gutxitetara partidu zan eta, txakur haundi batzuk etaratze-ko premiñan, Maria basarri-xetan generua erosi eta inguruetako azogetara erua-ten hasi zan, martxantera modura salerosketan, aitxagandik ikasitxako tratulari ofizixo berian. Eguna zabaldu orduko bidietara urte-ten eban, gorainok kargau-tako *Linda* astua lagun bakar ebala, bezpera illuntzi-xan erositxakuak saltzera;

bakardadiari aurre eitzeko kantau eta errezaue eitzen eban. Ortuari batzuen salmentia galazota euanez, Abastosetako guardien bildurretan, baba aliak eta uruna asto gaiñian zakutueta zabal-zabalik ipiñi albarda modura eta astosaren azpi-xan ezkututzen zitxuan. Kamiñuz zein bidez Durango, Eibar, Ondarru, Ermuko edo Bilboko merkatu plaze-tara juaten zan, oinazian txaka-txaka. Buruz etaratzten zitxuan kontuak, erri-letan beti, eta akorduan eu-

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MUGA

KIKOLAK

San Pelayo 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

I AKADEMIA

E ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ KONTELATUAK

Ermuko Merkatua,
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

kitzen eban nori zer eta zen-bat eruanda zotsan. Ondraua eta juste, eskuan ordaintzia gustatzen jakon; “bakotxari berie” izango zan seguruen bere ahotik gehixen urtendako esaldixa.

Plazako dendanequak

Lau alabok harek lur al-dapatsu eta gogorretatik etara guran, eta eurak euki ez eben eskolia emoteko ilusiñuakin, Ermuan denda bat hartzia erabaki eben. 1948. urtia zan. *Plazako Maria, Plazako dendanequak, Solozabal, Maria Anittu, Marianekuak, donde la María...* frontoi ezkiñako hari denda luzenkiari, izen ugari egokitxu jakozan famelixiaren eskuetan emon zitxuan 51 urtietan. Danetik saltzen eben eta horrexegaitxik be famosia eñ zan: “*juan Mariana, hantxe topaukozu!*”, “*Marianian ez-takazunik!*”.

Bizitzia baiña aldakez-ten lodixa ekarri zotsien dendia hartu eta hillabete pasautxora: alaba nagusixa, infekziño baten ondorixoz, paraplejia batek jota betiko gaixorik geratu jakuen. Urte gogorak izan ziran; aurre eñ bihar jakon larritxasun hari, Segurtasun Sozila egon ez eta botikak estraperluan jirau bihar ziran harek sasoietan. Zirkustiziño aldrebesen aurrian baiña, Maria umoreko beti. Kantatzia gustatzen jakon, pande-rua jotia eta antxiñako ipoiñak gogoratzia. Azoga, bide eta baztarretan pasarizo asko entzun eta ikusitxakua zan: “*lehenao be zerin, zereko zeraz zertu zan ze-*

rak...” Antxiñako ipoiñen bat akorduan beti.

Berrogetakaz urtekin ikasi eban idazten eta leitzen, dendara etorten zan biajante batek erakutsitxa. Gustoko eban tratua, saldu erosixak dakarren hartuemon, jendiakin kontuak esatia, honen edo bestian barri eukitzia... Urtietan aurrera zoiala gauza batzuen salmentia erretzaua eitzen jakon bestiena baiño. Ai, eskolarako maletak edo pijamia sartzeko harek telazko aingerutxuen eskabidia euanian... txinpartia baiño ariñago urtetzen eban bezerua atendi-tzera!

Mostradore ostian horrenbeste urte emon ondoren, anekdota askoren itxurri izan zan. Etxekuak sarri gogoratzen dabe zelan behin mutikoren batzuk etorri jakozan, adarra jo guran, “*María, ¿tienes electricidad en polvo?*” galdetuaz. Pentsakor geratu ei zala, zera bota aurretik: “*¡Sí, vete al otro tienda, chicas te darán!*”. Zubiaurren liburudendia zabaldu barri eken eta badaezpadan be hara zuzendu zitxuan. Oiñ, eletrisidas en polbuoi... zer zanik bez!

Laguntzaillia

Bere premiña orduetan, jende askok lagundu zotsan; esturasunetan, jende askori laguntzen apremixau zan. Etorkin ugari hartu zitxuan Ermuak urte gitxitxan; trenetik bajatu eta asko plazako dendiarene erreferentziarekin etozen. Apopillo modura etxeren bat topatzen ahalegintzen zan eta dendatik eruaten ebena a-



puntera emoten zotsien, harrik eta irabazten hasten ziranerarte. Onian ona, baiña behin goixa jotakuan... kuido gero! Su eta prasa paratzen zan ondo erizten ez zotsan zeozarren aurrian.

Zumitza lakoxia zan: gogorra, apurteziña eta aldi berian bihotz bigunekua eta sentiberia, negarra be segiduan etortzen jakon begixetara. “*Ni lurpien egon naz ta urten ein dot*” esan zotsan behin bati.

1983ko abenduaren 14an hil zan, 80 urte betetzear zitzuala. Bere hillela elizkizunetan, abadiak pulpitxutik “*herriko instituzio bat joan zaigu*” esan eban.

Hogetakaz urte badira be alde ebala, ondiñok etxekuen egunerokotasunian haren esakera, pasarizo eta bizitza filosofixak bizirik diraue. Maria, lorrotza lagatzen dabenetako andria!

Estibalitz González

TXALAPARTA TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona